

Jose Maria Bengoa

Deia, 1977-09-08.

Gure herrian ez da ezaguna.

Ez ordea, meriturik ez duelako: Munduko Osasun-Erakundea bezala itzuli genezaken World Health Organization (WHO) edo gazteleraz Organización Mundial de la Salud (OMS) delakoan dauden sailtako baten buru izan da hogeitaz urtez.

Honen ardurapean egon den sail garrantzitsua: Nutrizioa.

Jose Maria Bengoa, beraz, mundu osoaren nutrizioz edo elikaduraz arduratzen den erakundearen buru izan da hainbeste urtetan. Ginebran, OMS-en egon lekuan, bizi izan da, baina munduari itzuli asko eta asko eman dizkio. Ezagutzen ditu ondo India eta Pakistan-eko nutrizio arazoak, baita Afrikako hainbeste herriek goseak eraginda sufritzen ari diren nutrizioaren hutsuneak eta gaitzak ere. Eten gabeko lan neketsu eta merezigarri hontan joan zaizkio urteak, erretiratzekoak etorri zaizkion arte.

Eta meritu handia dena da, eta nerez ezagutzen dut hau, mundu guzian ezagutua den gizon hau euskaldun bezala agertu da beti.

Eta gero, beste gutako asko bezala, benezolar.

Venezuela-n egin zituen Bengoa sendagileak lehenengo nutrizio-azterketak. Eta ez errazki. Biderik ere ez zegoan leku ezkutuenaraino joaten zen gaixoak zaintzera, eta gaitza askotan gose hutsa izan ohi zen. Han ikasi zuen, gizonaren osasunaren oinarriak sendoena, neurrizko alimentazioa dela. Gehiegikeria kaltegarri, alimentu falta ere bai. Batzu dietetikara eskeintzen diren bezala, beste batzu, eta Bengoa lekuko, desnutrizioari, behartsuari, gosedunari, eskaini dizkio bere jakituria eta bere lana. Honek, bokazio aukera honek, berez zerbait esan nahi du.

Bide zail hontatik egin zuen lehendabizi Venezuelako Nutrizio Departamentu bat sortzeko proposamena, eta halaxe orduko gobernuak erabakia hartu eta bera jarri zuen buru.

Ez zuen lana gaizki egin, Venezuela-ren ordezkari bezala bidalia izan baizen OMS-era, eta hemen, Nutrizio sailaren buru egin.

Hau da Venezuela-ra guda ostean joandako bilbotar, bizkaitar eta euskaldun abertzale oso batek egin duen giza bidea.

Orain heldu zaigu beste kide batekin (Dr. G.H. Beaton) batera idatzi eta OMS-ek berak argitaratu duen liburu handi eta garrantzitsu bat: *Nutrition in Preventive Medicine*: ahalegia: Gaitzen aurre-arduratze bezala, Nutrizioa.

Gaiak ba du berez garrantzi handia gaurko mundu hontan; batez ere "hirugarrena" deitzen zaion hortan.

Hara, ba, nola guda garaian frentean egin zituen lanez gainera beste neke asko igaro eta gero. Venezuelara joan, han lanak gizonki eta argiro egin eta goi maila hontaraino heldu den.

Orain, Bengoa jauna Venezuelan da berriz.

Hemen izandu dugu egun hoietan, Elantxobe-ko bere etxean, eta gure lankide batek elkar-hizketa aberats bat ere egin dio.

Hala ere, ekarri nahi nuen euskaldun eta abertzale handi honen izena, eredu eta adierazgarri bezala, gure euskaldunen txoko hontara.

Merezi duelako.

Eta bide berez, gure herritik kanpora ditugun beste euskaldun argi eta langile askori omen bat egitea bezala dela iruditzen zaitelako.

Laster izango ahal ditugu denak gure artean, gure herriaren aldeko lanetan.